

ZURE BEGIRATUAK IKUSGAI BIHURTZEN DITU, ZURE ENTZUTEAK ARDURADUN EGITEN ZAITU. ZURE ISILTASUNAK GAIZKIDE EGITEN ZAITU...

Otsailaren 8an, Santa Bakhitaren bizitza oroitzuz, Pertsonen Salerosketaren aurkako Gogoeta eta Otoitzeko Munduko Eguna ospatuko da. Frantzisko Aita Santuak dei egiten deusku zazpigarren urtez jarraian egun hau ezagutu eta ospatu daigun, kristau alkarteei sarritan ezezagun edo arrotz gertatzen jakun errealidade hau ezagutzera emoteko eskatzeaz batera.

Horretarako, Migrazinoetarako Mahaitik agiria prestatu dogu, ***Samariar Onaren parabolaren argitan***. Izan be, parabola honek **Jesusen atzetik jarraitzeko eraz** galdetzen deusku eta baita giza eskubideen aurkako benetako gertaeren aurreko **jokabide etikoaz**. Kontaketa horren haritik, ahuleziatzko egoeran dagozan pertsonen egoera ikusiezina, hain zuzen be, gaur egun, generoak eragindako egoera, batez be emakumeak diralako kaltetuenak, eta gero eta handiagoa dan desbardintasuna eta pobretasuna aztertuko doguz.

Ignacio Ellacuriak (martiri salvadortarra 1989an) inoanez, “bere **kargu hartzeaz** eta **nork bere gain hartzeaz** gainera, **berataz arduratzen** garanean ezagutzen dogu errealidadea”(2).

1. Ikusi: “errealidadeaz kargu hartu”



NOR DA EDO IZAN DAITEKE SALEROSKETAREN BIKTIMA?

Ahuleziatzko egoeran dagoan edonor, eta ez nahitaez gizarte-maila jakin batekoa dalako; gainera, eremu nazionalean zein internazionalean gertatu daiteke. Dana dala, pertsonen salerosketa, etorkinen legez kontrako trafikoa eta prostituzinoa, zapalketa-molde nagusi lez, ezin da biztanleriaren mundu-mailako mobimentuetatik, jatorri, korridore eta jomuga diran herrialdeen migrazino-politiketarik eta, azken batean, gizarte eta ekonomia desbardintasunetik bereizi.

Datuak:

Terrorismoaren eta Krimen Antolatuaren aurkako Inteligentzia-zentroak Espainiako Pertsona-salerosketaren eta Esplotazioaren inguruan egindako Estatistika-balantzetik hartutako datuak:

Pertsona-salerosketa giza eskubideen urraketa larria da eta irabazi handiak -droga-trafikoaren atzetik handienak eta arma-trafikoaren irabazien parean- emoten dituan jarduera kriminala.

Pertsona-saleroskea aitatzean, kopuruaren inguruko galdera sortzen da. Zenbat? Halanda be, oso gatxa da kopuru zehatzik emotea, eta izatez garrantzitsua bada be,

ZURE BEGIRATUAK IKUSGAI BIHURTZEN DITU, ZURE ENTZUTEAK ARDURADUN EGITEN ZAITU. ZURE ISILTASUNAK GAIZKIDE EGITEN ZAITU...

nahikoa litzateke biztanleriaren guztizko kopuruaren barruan biktima gitxi batzuk izatea onartezintzat joteko.

Digitalizatzearen eraginez, pornografia barra-barra zabaldu da online eta aldaketak ekarri ditu betiko prostituzinoan. Ikusezin bihurtu da eta gatxagoa da geldiarazotea.

2022an, Polizia Nazionalak eta Guardia Zibilak 1.810 ikuskaritza administratibo egin ebezan prostituzinoan jarduten daben lekuetan eta tartean 26 neska adin txikiko aurkitu ebezan. Ikuskaritza horri esker, prostituzinoan jarduteagaitik arrisku-egoeran egozan 6.655 lagun identifikatu ebezan lokal horreetan, gehienak 33 eta 37 urteko emakumeak, kolonbiar, espainiar eta errumaniarrak.

Biktima guztien artean, 229 pertsona-salerosketarako sare kriminal antolatuek harrapatu ebezan.

Beste 951, prostituzinoko edo laneko eremuetan sexu esplotazinarako prozesuak jasaten dabezan biktimak dira.

Balantzean jasotakoaren arabera, guztira 129 biktima askatu ebezan sexu esplotazinarako pertsona-salerosketatik, lau, adin txikikoak (Euskal Herrian, pertsona-salerosketaren 4 biktima).

Biktima gehienak 23 eta 27 urte bitarteko emakumeak dira, jatorriz Kolonbia, Paraguai eta Venezuelakoak.

LANEKO ESPLOTAZINORAKO pertsona-salerosketari dagokionez, 89 biktima askatu ebezan, lau adin txikikoak. Kasu honetan, biktima gehienak gizonak dira, 28 eta 32 urte bitartekoak, Maroko, Ukraina edo Errumaniakoak.

Laneko esplotazinoa jasan, baina aldi berean pertsona-salerosketaren sareetan jausi barik egozan biktimen artean, 516 askatu ebezan, bat adin txikikoa. Biktimen ezaugarriak antzekoak ziran: 23 eta 27 urte bitarteko gizona, Maroko, Kolonbia edo Senegaletik etorritakoa.

Derrigorrezko ezkontzetarako pertsona-salerosketari dagokionez:

2022an, derrigorrezko ezkontzetarako pertsona-salerosketaren kasu bitan esku hartu zan biktima bigaz, bata adin txikikoa, espainiarra eta pakistandarra. Azkenean, bost lagun atxilotu ebezan.

Europar:

**ZURE BEGIRATUAK IKUSGAI BIHURTZEN DITU, ZURE ENTZUTEAK
ARDURADUN EGITEN ZAITU. ZURE ISILTASUNAK GAIZKIDE EGITEN ZAITU...**

2022an, pertsona-salerosketaren 10.093 biktima egozan erregistratuta EBean eta 2.097 trafikatzaille zigortuta.

2022an, pertsona-salerosketaren biktima lez erregistratutako guztien %63 emakumeak ziran eta zigortutako trafikatzailleen %23 baino ez ziran emakumeak.

2022an, EBean pertsona-salerosketaren biktima lez erregistratutakoen %37 ziran Estatu kideetako herritar.

https://ec.europa.eu/eurostat/statistics-explained/index.php?title=Trafficking_in_human_beings_statistics

“Behin baten, bajoian gizon bat Jerusalemdik behera Jerikorantz, eta lapurren eskuetan jausi zan. Lapurrek, eukazanak kendu eta, egurtu ostean, alde egin eben, erdi hilda itziz. Hatan be, abade bat gertatu zan bide haretan behera eta, gizona ikusi ebanean, bidetik baztertu eta aurrera jo eban. Beste horrenbeste egin eban handik igaro zan tenpluko levitar batek be: ikustean, bidetik baztertu eta aurrera jo eban. Baina bidaian zan samariar bat bertara heldu eta, ha ikustean, errukitu egin jakon”. (Lk 10, 29-33)



Hausnarketa:

1. Errealidade ezezaguna da niretzat? Ezezaguna bada, zelan kokatzen naz orain horren aurrean? Ze barritasun dakarkit, zer da barri niretzat?
2. “Begiratu bai, baina ikusten ez dozun” (Mt 13, 13) horreetakoa ete zara? Ze egitekok galarazten deust ikustea? Edo zerk bultzatzen zaitu aurrera egitera?

**ZURE BEGIRATUAK IKUSGAI BIHURTZEN DITU, ZURE ENTZUTEAK
ARDURADUN EGITEN ZAITU. ZURE ISILTASUNAK GAIZKIDE EGITEN ZAITU...**

2. Epaitu: ikusitakoa aztertuko dogu: “nork bere gain hartu” eta... “bihotzetik pasatu”

BIZITAKO GERTAERA. KONTAKETA

II. 32 urte, brasildarra: “banekien prostituitzera nentorrela. Dirua behar neban aitaren gaixotasunari aurre egiteko, baina sekula ez jatan burutik pasatu be egin gero biziko nebana. Beste hamazortzi neskekagaz nengoan gelan. Egutero, arratsaldeko seietan, kamioneta iristen zan, klubera eroaten ginduzan eta goizaldean bueltatzen zan gure bila. Baina ez da hor amaitzen. Madamearen semea edozein ordutan etorten zan bere lagunekin eta eurekin sexu-harremanak izatera behartzen ginduzan. Ezin genduan inogaz hitz egin, egoera jasanezina zan niretzat eta ibes egitea obsesino bihurtu jatan, baina, nora joan neitekean agiri barik? Bezero bati esan neutsan, arren nor zan esateko eta laguntzeko. Abokatua zan eta handik egun gutxira polizia sartu zan klubean eta sarea desegin eban. Gaur egun, Igualadako zerbitzu batean lanean dago.

Frantzisko Aita Santuaren idazkiak:

Egutdoko larritasuna eragin izan deust beti pertsonen salerosketa jasaten daben pertsonak. Danoi galdezka dibarduan Jainkoaren garrasia entzun daigula gurako neuke: Non dago zure arreba, non zure anaia? Non da egutero ezkutuko tailerrean, prostituzino-sarean, eskale lez darabilzuzan umeen artean, erregularizatu barik dagozalako ezkutuan lan egin behar dabenen artean hiltzen dozun hori? Ez daiguzan obarkabearen plantak egin: konplizitate asko dago. Galdera danontzat da!

“Errukitu egin jakon. Hurreratu eta zauriak lotu eutsozan, olioan eta ardaoz igurtzi ostean; gero, bere asto gainean jarri, (Lk 10, 33-34)

Hausnarketa:

1. Ze galdera sortzen jatzu?
2. Zerk eragin deust zirrara gehien begirada horretatik?
3. Zelan sentitzen naz aurkezten jatazan egoera horreen aurrean? Bildur naz? Galderak bizten jatatzu? –Neure egingo dot errealdade hori, “neure gain hartuko dot”, bihotzetik pasatuz, bizitzako minutu batzuez neure eginez, neuri be badagokit-eta.

**ZURE BEGIRATUAK IKUSGAI BIHURTZEN DITU, ZURE ENTZUTEAK
ARDURADUN EGITEN ZAITU. ZURE ISILTASUNAK GAIZKIDE EGITEN ZAITU...**

3. Ekin: “errealitateaz arduratu”. Proposamenak, aholkuak...

“Konprometitu barik pentsatzea, alperrekoa da eta pentsatu barik konprometitzea, arriskutsua” (Natividad de la Red)

“Ostatura eroan eta bere ardurapean hartu eban. Biharamonean, zidarrezko txanpon bi atara eta ostalariari emon eutsozan, esanez: «Jagon egizu eta, gehiago gastatzen badozu, hurrengoan natorrenean ordainduko deusut”. (Lk 10, 34-35.)

Batzar honetan ikusi eta ezagutu dudanaren “kargu hartu” ondoren, bihotzetik pasatu dot, hau da, “neure gain hartu dot”, min emon deust, sentitu egin dot, errealitatea entzun dot eta galdera egin deusat neure buruari. Orain, galdera honeek egingo dodaz:

1. Zelan “arduratu naiteke horretaz”?
2. Zertan konprometitzen ari da nire bizitza eta bihotza?




HAINBAT AHOLKU:

- **SENTSIBILITATEA hezi**, errealitatea ulertzeko eta haren deia entzuteko lehenengo urrats lez. Zergaitik dago pertsonen salerosketa eta zergaitik gauzatzen da, gaur egun, bide horretatik. Salerosketa emakumeen giza eskubideen bortxaketa oso larria izanda, zer dala-eta ez dau alarmarik bizten gizartean?
- **BEGIRATZEN ikasi**. Jarrera da benetan balio dauana. Begirada ARGI, KRITIKO eta SINISTEDUNA izateak gertaera honen inguruko norbere aurrerretxiak alde batera itzi eta emakumeen begietatik eta Jainkoaren begietatik ikustea eskatzen dau.
- **JARAMON EGIN eta ez entzun bakarrik**. Errealidadera jarrera eraginkorraz hurreratu, komunikabideen –irradi, prentsa, telebista, gizarte sare, internet...- bidez ikusten eta entzuten dogunaren inguruan galderak eginez eta jarrera kritikoa hartuz, agertzen danetik harago ikusi ahal izateko. Barriaren zergaitiak, edukia, helarazteko era... bilatu.
- **GARRASI EGIN** eta ikusi eta entzundakoa **salatu**. Biktimen alde agertzen ez bagara, tratularien alde egiten dogu, bidea libre itziz erabateko zigorgabetasunez jardun daien.

**ZURE BEGIRATUAK IKUSGAI BIHURTZEN DITU, ZURE ENTZUTEAK
ARDURADUN EGITEN ZAITU. ZURE ISILTASUNAK GAIZKIDE EGITEN ZAITU...**

- **GURE HIZKERA ZAINDU.** Hizkuntza ez da inozoa, errealidadearen ikuspuntua islatzen dau eta jarrera eta jokaeretan eragiten.
- **SENDATU BAINO HOBE ARAZOARI AURREA HARTU.** Familia, eskola, parrokiak sozializaziorako lehenengo unitate lez, zenbateraino hezitzen dabez neskato eta mutikoak eskubideen bardintasunean, aginte eta arduren banaketan, alkarrenganako errespetuan? Ze eratako maskulinitate eta feminitate transmititzen jake umei nortasun-eredu eta bestearen integrazino positibo lez? Hil edo bizikoa da pertsona guztien duintasun bortxaezina eta euren eskubideen errespetua lako balioetan sendo finkatutako kulturaren hezitzea.
- **GIZARTEAN SENTIBERATASUNA BIZTU.** Prostituzinoan aritzen diran emakumeak eta salerosketaren biktimak guregandik gertu dagoz. Agerian eta, aldi berean, ikusgai. Ereku publikoak hartzen dabez eta, batzuetan, euren presentziak gatazkak eragiten ditu. Ze jarrera dogu gertaera horren aurrean? Ze arrazoi dogu gure jarrerari eusteko? Zertan oinarritzen dogu jarrera hori?



✓ **Beste hainbat lagungarri:**

‘Ebelyn’ eta ‘Alanis’ pelikulak ikusi daitezke. Pertsonen salerosketa eta horren biktima diraneren perfilak islatzen dabez.

- **Evelyn** pelikulak noizean behin prentsan agertzen diran izenburuen bidez zehaztasun barik ezagutzen dan istorioa zehatz-mehatz kontatzen dau: Espainiara lan egitera datozen emakumeek jasaten daben txantaje eta esplotazioa. “Errealidadea, fikzioa baino askoz gogorragoa da”, esaten da emakume horreek bizi daben esperientziaren inguruko nahasketa eta erruduntasunari buruz.
- **Alanis**, sexuaren munduan lan egiten dauan emakume gaztea da, seme txikia dau eta Gisela adiskideagaz bizi da apartamentu batean. Egun batean, gizon ezezagun bi joaten dira apartamentura nortasun faltsuakaz eta beren burua bezero lez aurkeztuz, Alanis eta Giselari galdeketa egin eta apartamentuaren alokairua bertan behera izteko. Hortik aurrera, Alanisek sendo borrokatu behar izango dau gizartean lekua

ZURE BEGIRATUAK IKUSGAI BIHURTZEN DITU, ZURE ENTZUTEAK ARDURADUN EGITEN ZAITU. ZURE ISILTASUNAK GAIZKIDE EGITEN ZAITU...

hartzeko. Hainbat zailtasun agertu arren, berak ez dau biktima izan gura eta bere egoerari aurre egin behar izango deustso.

- **Oloture**, Lagos (Nigeria), neska kazetari gazte eta inozoak bere burua prostitutatzen aurkezten dau mundu ilun hori agertzera emoteko eta pertsonen salerosketa salatzen. Proxenetek betetako inguru anker horretara ohituta ez egotean, gaztea Blessing, Beauty eta Linda bizilagun dituan prostituten adiskide egiten da. Halanda be, giro horren atzean zer ezkututzen dan jakiten saiatzen dan bitartean, bizimodu horrek erakarri egiten dau apurka-apurka eta horrek ondorio larriak ekarri leikeoz.

Kenneth Gyang film luze honen zuzendaria

*«Jente txiki askok, leku txikietan, gauza txikiak eginez, mundua aldatu leike»
(Eduardo Galeano).*